



DEIALDIA

UDAL OSOKO OHIKO BATZARRA

Udal-Osoak ohiko biltzarra burutu behar duelarik, honen bidez deitzen zaizu, aipatu egun eta orduan bertara zaitezten. Bilkuran, ondoren zehazten diren gaiak aztertuko dira.

Eguna: 2024/05/29

Ordua: 18:00-ak

Tokia: Udaletxeko Areto Nagusian

Aztergaiak:

1. Aurreko batzarrei dagozkien akten onarpena.
2. Errenterian gertatutako eraso matxista bati buruzko Oiartzungo Mugimendu Feministaren mozioaren onarpena, EHBildu udal taldeak bereganatutakoa
3. Altzibarko ALT-6 eremuko erregimen bereziko 12 etxebizitza tasatuen esleipenerako zozketan parte hartzeko onartuen eta baztertuen zerrendaren behin behingo onarpena (2024HI100001).
4. Arditurriko plano inklinatuko harmailak, eskulekua eta argiteria jartzeko (2. Fasea) obra onura publikokoa izendatzea eta OTASA, S.A.ri emandako obra baimenari dagokion zergan hobaria aplikatzea (2024HI380053).
5. 2025 urteko Oiartzungo udalerriko jai eguna izendatzea (2024GB120001).
6. Beste ekitaldietako ordainagiriak baliogabetzea (2024ER070003 eta 2024ER070004).
7. Gaiaren urgentzia onartu ondoren, hala badagokio, Herri Bideen Inbentarioko "195-196 Andrearriaga Bidea"n egindako usurpazioa aldentzeko jabari publiko ondasuna berreskuratzeko espedientea hastea (2024ON050001).
8. Udal herri bide bat mugarrizko erabakiari jarritako helegitearen amaieraren berri ematea (2020ZJ030001).
9. Beste organoen jardueraren jarraipena.
10. Eskari-galderak.

Etortzerik ez bazenu, Alkatetza honi jakinaraztea eskatzen dizut, hala jasota gera dadin.

Oiartzunen, sinaduraren egunean.

Alkateordea

Garazi Urdampilleta Astibia

(Alkatearen ordezkotzan 7/1985 Legearen 23.3 artikulua baitan)

Elektronikoki sinatua



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024ID380007-Deialdia/Deialdia (OIARTZUNGO UDALA)